


Ieltsinen autogolpea



Errusian



EIK-ko ordezkariak emandako babesa eskertu zuen atzo Ieltsinek gailurraren sarrera hitzaldian.

EIK-ko agintariak aho bateko babesa eskaini diote Ieltsini

Batasun Ekonomikorako Hitzarmena adosteko bildu ziren atzo Moskun

Estatu Independenteen Komunitatea (EIK) osatzen duten estatuburuek Boris Ieltsin Errusiako lehendakariarekiko elkartasuna eta «krisia gainditzeko hartu dituen» neurriekiko babesa azaldu zuten Moskun atzo egin zuten gailurrean.

MOSKU

EIK-ko buruzagiaren arabera, «Errusiako Erreforma Politiko eta Ekonomikoaren jarraipena —horren berme Ieltsin delarik— bake garapenerako premisa guztiz garrantzitsua da EIK-k barne hartzen duen lurralde geopolitiko osoan».

Buruzagien aurrean Kremli-neko lehenak egin zuen sarrera hitzaldian, eskertu egin zuen gailurrean parte hartzen ari ziren

kideek bere erreforma politikoa eskainitako babesa, eta «Errusian ordena eta lasaitasuna bermatuak» daudela eta aurrerantzean ere hala jarraituko duela adierazi nahi izan zien Errusiako lehendakariak bertan bildutakoei.

Ieltsinen agindupean dagoen prentsa zerbitzuak atzo jakinarazi zuenez, Estatu Independenteen Komunitateko buruzagiek bilkuraren hasieran egin zuten Errusiako lehendakariaren aldeko deklarazioa. Hura onartu ostean ekin zioten 18 eztabaidagai zituen gai zerrenda aztertzeo bilkurari.

BATASUN EKONOMIKORAKO HITZARMENA

Bertan Batasun Ekonomikorako Hitzarmena sinatu zuten Azerbaidjan, Armenia, Bielorrusia, Kazakhstan, Kirgizistan, Moldavia, Errusia eta Uzbekis-

taneko ordezkariak. Turkmenistan eta Ukrainakoek, berriz, Batasun Ekonomikoa onartu bai, baina bertan «kide elkartu» gisa aritzeko asmoa adierazi zuten. Errusiako iturri ofizialen arabera, hala ere, litekeena da bi herrialde hauek aurki «osoko kide» gisa dokumentua sinatzea.

Atzo egindako gailur honetan, gainera, Azerbaidjan lehen aldiz aritu zen EIK-ko kide gisa, herrialde horretako ordezkariak atzora arte ez baitzuten EIK-ko sorrera hitzarmena sinatu.

Ateak itxita zituztela bildu ziren agintariak Batasun Ekonomikorako Hitzarmena sinatu ezezik elkarlaguntza ekonomikoan jarduteko oinarriez ere aritu ziren atzo.

Honeaz gain, EIK-ko Atzerri Ministroen Kontseilua osatzea eta Indar Armatu Bateratua berregituratzea ere eztabaidatu zituzten.

dentzialista agindu ostean.

Estatu Independenteen Komunitateko ordezkariak baina, entzungor egin diete Parlamentuko diputatuek hitzartutako gomendioei, are gehiago, harek irizitakoaren aurka egin zuten atzo. Izan ere, Ieltsini babesa eman diotenen zerrenda berean sartzea erabaki baitzuten aho batez.

Saioa boikotatzeko gomendioa

MOSKU

■ Larrialdizko sesioan bilduta, Errusiako Makroparlamentuak Moskun egin zen gailurra «boikotatzeko» deia egin zien atzo Estatu Independenteen Komunitateko (EIK) agintariak. Ieltsinek asteartean emandako autokolpearen aurkako jarrera agertzeko

modurik onena horixe zela jakinarazi nahi izan zien Makroparlamentuak, baina, EIK-ko agintariak jaramonik egin gabe jarraitu zuten euren jardunean.

Herriko Parlamentuko kideek sinatutako deklarazioaren arabera, Ieltsinek «gerra zibilaren atarira eramandu Errusia» joan den asteartean erregimen presi-

Georgiako tropek Sukhumiko setioa apurtzea lortu dute

TBILISI

Georgiako Armadako I. Gorputzeko indarrak Sukhumin sartu ziren atzo, eta ondorioz abkhaziarrek Sukhumin zuten setioa apurtzea lortu dute, Abkhaziako Hiru Aldeko Batzordeak esandakoaren arabera Errusiako Itar-Tass prentsa agentziak adierazi zuenez.

Informazio horren arabera, Sukhumiko kaleetan borrokak ez dira eten eta Abkhaziako tropek Sukhum mendia hartu dute, zeinetan hiriko telebista dorrea dagoen. Abkhaziarrek beste eraso bat egin zuten atzo goizaldean, hiriaz jabetu asmoz, eta atzo borrokak Sukhumiko iparral-

deko eta mendebaldeko auzoetara zabaldu ziren, batez ere Noviy barrutira eta Gudauta ibaiaren ingurura.

Bitartean, 'Snaiپر' itsasontziak irratiz adierazi zuenez, itsasoak Sukhumitik hainbat gorpu daramatza, gehienak erdi biluzik dauden eta hil dituzten emakumeen gorpuak.

Hiru Aldeko Batzordeko errusiar aldea gaur populazio zibila bertatik ateratzeko lanen prestaketan aritu da azken orduetan, zeintzuen artean biktima ugari dagoen. Jendea bertatik ateratzeko garraiorenko itsasontziak erabiliko dira eta Itsaso Beltzeko Flota Militarren laguntza izango dute.

Rabin: Arafaten itzulera data ez dago oraindik hitzartuta

JERUSALEM

Iasser Arafat Palestinaren Askapenerako Erakundeko (PAE) lehendakaria Zisjordaniako Jeriko hirira itzulitzeko akordioak oraindik bere Gobernuak ez duela onartu azaldu zuen Yitzhak Rabin Israelgo lehen ministroak.

Israelekin hitzartutakoari jarraiki «Lurralde Okupatuetara itzuliko den data iragartzean baino ez du huts egin Arafatek, horretarako ez baitago oraindik akordioak», zehaztu zion Tel Aviveko gobernu buruak 'Jediot Ajronot' egunkariari.

Iragan den hilaren 13an Israelek eta PAEk elkar eza-gutu eta Gaza eta Jerikoko autonomiari buruzko akordioa sinatu ostean, erakunde

palestinarrako lehendakariak Jerikora itzuliko zela iragarri zuen, eta «hamar asteren buruan» izango zela zehaztu gainera.

Herenegun Parlamentuaren babesa jaso zuen Rabin jakinarazitakoaren arabera, Palestinaren Askapenerako Erakundeko kideekin negoziaketei berrekiteko ardurak Israelgo Indar Armatuakordezkariak izango dute aurrerantzean.

Zenbait talde palestinarren artean Israel eta PAEren arteko akordioak sortutako aurkakako jarrerak baretzeko, bestalde, erakunde palestinarrako ordezkariak borondate oneko beste keinu bat eskatu diote Israeli, «kartzeletan dituzten milaka preso palestinarrak aske uztea» alegia.

Sihanuk Kanputxeako errege da atzoko koroazioaren ondoren

PHNOM PEHN

Norodom Sihanuk 70 urteko printzea, atzo gaueko zeremoniaren ostean, Kanputxeako errege koroatu dute bigarren aldiz, ostiral goizean Kanputxean erregetza berrezartzen duen Konstituzio berria aldarrikatu ondoren.

Ostiralean egin zen dokumentu historiko honen sinaketa. Sihanuk Kanputxeako gatazkak konpontzeko funtsezkoa da, istilutan dabiltzan alderdi politikoaren artean bi-tartekari lana egin dezakeen gizon bakartzat ikusten baitute kanputxearrek.

Sihanuk printzea 1941ean koroatu zuten lehenengo aldiz, baina 1955ean abdikatu egin zuen politikan sartu ahal

izateko. Estatu buru izendatu zuten, baina 1970ean, Estatu kolpe bat zela medio, kargutik bota zuten.

Khmer Gorriak talde maoista armatuak hartu zuen boterea ondoren, eta vietnamitek hauek bota ondoren Hun Sen exiliatua izendatu zuten Lehen ministro. 1989an vietnamitak Kanputxeatik botatzea lortu zuten. 1991ko irailan Gobernuak 1970eko Estatu kolpea legez kanpotzat jo zuen, eta Sihanuki Estatu buru kargua hartzeko eskatu zion hauteskundeak izan arte.

Hauteskundeetan hautatutako Biltzar Nazionalak Konstituzio berria idatzi zuen, eta honen bitartez monarkia berriro ezarri zen.